

# Dragoiak eguzkia irentsi zueneko

**Aksinja Kermauner**

**Itzultzailea:** Patxi Zubizarreta

**Bilduma:** Ostiral saila (12 urtetik gora)

**Generoa:** Eleberria

**Formatua:** 135 x 215 mm.

**Orrialdeak:** 310

**Koadernaketa:** paperezko azala

**Argitalpen data:** 2024/11/06

**ISBN:** 978-84-9868-858-0


**SALNEURRIA (BEZ gabe): 16,35 €**

**SALNEURRIA (BEZ bame): 17,00 €**

**BIDAIA NOBELA, TXINA, OHITURA ETA TRADIZIOAK**



9 788498 688580



## Sinopsia

Gazte literaturak ongi idatzitako liburuak behar ditu, noski, baina batez ere gai sakonak behar ditu, benetakoak. Hain zuzen ere bidaia nobela honek eskura dakartzen bezalakoak. Zergatik? Bada zure antzeko nerabeek herrialde guztiz desberdin batera egindako bidaia eskaintzen duelako, hau da, beste hizkuntza bat, bestelako ohitura eta tradizioak aurkezten dituelako. Horrekin batera, pertsonaiak eskolakide lagunak dira eta haien egoera emozionalaren arabera aztertuko dituzte Txinako jakituria eta eromena, ontasuna eta etsipena, modernitatea eta antzinako kultura, Txinako alde onak eta ez hain onak... Eta hona emaitza: benetako lilura pizten duen narrazio bat.

Baina Aksinja Kermauner-en ikuspuntua are interesgarriagoa da: hainbat hamarkada ikusmen urriko gazteak artatzen igaro ostean, egileak Sunčan –kasik– itsua aukeratu du protagonista eta narratzaile lanak egin ditzan.

Honaino iritsi ahal izateko, Aksinja Kermauner-ek bide bihurri bezain atsegina proposatzen du irakurleen bihotzera iristeko –zurera, nirera–, bizitasun handiko pertsonaiak aurkezten dizkigu eta, finean, eguzkia irensten ari den dragoi bat amesten eta irudikatzen laguntzen digu.

Ilargiaren argitan, hobeki eta urrunago IKUS dezagun.

## Egileak

**AKSINJA KERMAUNER** esloveniar idazlea, hezkuntza bereziko irakaslea eta esloveniera eta arte ederretako katedraduna da. Desgaitasuna dutenen gizarteratzea hobetzeko proiektuak gidatzen ditu, eta hamaika artikulua nahiz monografiko zientifiko ondu ditu. 41 liburu idatzi ditu, haur, gazte eta helduentzat, batez ere zentzumen-urritasunak dituzten haurrentzat (ukimenezko liburu ilustratuak, besteak beste). Bere ibilbidean zehar sari ugari jaso ditu. Esloveniako Idazleen Elkarte kidea da, eta Esloveniako Hezitzaile Berezien eta Errehabilitazio Hezitzaileen Elkarteko lehendakariordea.

**PATXI ZUBIZARRETA** (Ordizia, 1964). Idazle lanetan gazteentzako hainbat obra sortu ditu, hala nola *Eztia eta ospina*, *Atlas sentimentala*, *Mundua lo dagoen bitartean* edo *Erantzuna haizean dabil* nobelak. Sortzaile itzulua eta saritua da, eta *Zerria* lanarekin, adibidez, Euskadi Saria eta Espainiako Sari Nazionala jaso zituen. Baina itzultzailea ere bada eta, *Dragoiak eguzkia irentsi zueneko* itzul-lan honekin batera, bereak dira, adibidez, Exupéryren *Printze txikia* edo Eric-Emmanuel Schmitten *Ibrahim jauna eta Koranaren loreak* liburuen itzulpenak.